

ZELAIETAKO LOKALEN ERABILERA EGOKIRAKO ARAUAK

1. Eskatzaileak inprimaki bat bete beharko du Harreran edota posta elektronikoz bidali, erreserbatu nahi duen eguna baino hiru egun arinago.
2. Behin erreserba baieztatuta, eskatzaileak giltza batuko du Harreran saioa hasi aurretik, eta bertara bueltatuko jarduera bukatutakoan.
3. Edozein jarduera hasi aurretik, lokala eta bertako materiala egoera onean daudela ziurtatuko du erabiltzaileak. Horrela ez bada, informe bat aurkeztuko du Harreran, behar den moduan ez daudenen berri emateko. Bestela, horren arduradun egingo da.
4. Kontuan izanik lokal bakoitzean hainbat ekintza egiten direla, norberak erabiltzen duen materiala biltegian ondo batuta utzi beharko da, aurretik zehaztutako lekuan.
5. Instalazioa era egokian erabiltzea (materiala, mahaiak, aulkiak, etab.) eta jokaera, zentroko beste erabiltzaileei trabarik egin gabe, lokala eskatu duen pertsonaren ardura izango dira.
6. Behin jarduera bukatuta, aurkitutako egoera berean utzi beharko du lokala, argiak itzalita, iturria zarratuta, edota erabiltzen diren tresnak itzalita.
7. Gogoan izan: Debekatuta dago lokaletan erretzea, jatea eta zentroko beste erabiltzaileak gogaitzerainoko soinu bolumenak sortzea.

Arau hauek betez gero, Zelaieta Zentroa darabilgun guztion gogobetetzea lortuko dugu.

Eskerrik asko